



JUNTAS GENERALES DE ALAVA ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

Arabako Biltzar Nagusiek, 2010ko martxoaren 8an egindako Osoko Bilkuran, honako erakunde - adierazpen hau onetsi zuten:

ERAKUNDE-ADIERAZPENA **2010KO MARTXOAREN 8a** **EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA**

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, data ezin hobea da Biltzar Nagusi hauek duten nahia azaltzeko; hau da, benetako oinarriak jartzekoa emakumeen berdintasuna egia izan dadila eta ez asmo hutsa.

Arabako Biltzar Nagusietako Biltzarkide Talde guztiek **GAIN HARTU DUTE ONDOKO KONPROMISOA:**

- Berdintasunaren aldeko politikak SENDOTZEA, eta arreta berezia jarriko dute krisi ekonomikoak dagoen desberdintasunaren zuloa handitu ez dezan.

- Emakume taldearen oroimena BERRESKURATZEA ETA ONARTZEA; oroimen horrek gure etorkizuneko proiektuen inguruan hausnarketa egiten lagunduko digu eta, horrela bada, etorriko diren belaunaldiek beste emakume batzuek egindakoa berreskuratu ahal izango dute. Emakume gazteenen kasuan, datorkigun etorkizuneko protagonista izatearen erronka bikoitza dutenez, aurrekoek egindako lana aurrerapen eta bultzada handikoa da. Baina errealitate berri bati egiten diote aurre, non desberdintasunaren agerpenak zorrotzagoak diren, eta nahiz eta itxuraz berdintasunezko errealitatea bizi, beharrezkoa dugu zenbait jarduerak, portaerak eta politikak aldarrikatzea, benetako berdintasuna bermatzea sustatzeko modukoak.

- LANEAN JARRAITZEA emakumeen aurka egiten den biolentziarekin amaitzeko. Botere

Las Juntas Generales de Álava en su Sesión Plenaria celebrada del día 8 de marzo de 2010 aprobaron la siguiente declaración institucional:

DECLARACION INSTITUCIONAL **8 DE MARZO DE 2010** **DIA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES**

El 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres, es la fecha propicia, para que estas Juntas Generales muestren verdaderamente su voluntad de poner las bases reales, para que la igualdad de las mujeres sea un hecho y no una mera aspiración.

Todos los Grupos Junteros de las Juntas Generales de Álava **NOS COMPROMETEMOS A:**

- FORTALECER las políticas a favor de la igualdad, poniendo especial atención en que la crisis económica no suponga un aumento de la brecha de desigualdad existente.

- RECUPERAR Y CONOCER la memoria colectiva de las mujeres que posibilite reflexionar sobre nuestros proyectos futuros y conseguir así que las generaciones jóvenes recuperen lo que otras mujeres han realizado. En el caso de las mujeres jóvenes, que asumen ese doble reto de constituirse en protagonistas en un próximo futuro, el trabajo hecho por sus antecesoras ofrece un gran avance e impulso para ello. Sin embargo, afrontan una nueva realidad donde las manifestaciones de la desigualdad a menudo se muestran más sutiles, viviendo una realidad de aparente igualdad, en la que sigue siendo necesario reivindicar actitudes, comportamientos y políticas que fomenten y garanticen la igualdad real.

- SEGUIR TRABAJANDO con ímpetu por la erradicación de la violencia ejercida contra las



publiko batek ere ezin du biolentzia horrekin amaitzeko borroka alboan utzi. Eta jakin badakigu emakumeen aurkako biolentziari aurrea hartzeko erarik eraginkorrena, pertsona guztion arteko benetako berdintasunaren alde aurrera egitea dela. Hori dela-eta, Foru Aldundiari **ESKATZEN DIOGU** genero-biolentziaren ondorioz hilketa bat gertatzen den bakoitzean erakundeen aurrealdean **PUNTU MOREKO** bereizgarria jartzeko; modu horretan, genero-biolentziaren aurkako salaketa eta horrekin amaitzeko konpromisoa erakutsiko dute.

- LAN EGITEA Arabako erakundeek ondokoa ziurtatu dezaten: ardura-eremu guztietan emakumeen eta gizonen arteko parte-hartze orekatua lortzea.

- Lan egiteko konpromisoarekin JARRAITZEA ondokoa lortzeko: eskubide eta betebeharren eremuan subjektu berdinez osatutako lurraldea sortzea. Horretarako, dauden lege bitartekoak erabiliko dituzte eta bideak erraztuko dituzte gizonen eta emakumeen garatzeko aukera berberak izan ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2010ko martxoaren 8a
LEHENDAKARIA

mujeres. Ningún poder público puede permanecer al margen de la lucha por eliminar esta violencia. Y sabemos que la única forma eficaz de prevenir la violencia contra las mujeres consiste en avanzar hacia la igualdad real entre todas las personas. Por eso hoy **INSTAMOS** a la Diputación Foral para que cada vez que haya una muerte por violencia de género en la fachada de la institución se ponga el distintivo del **PUNTO MORADO** para hacer visible nuestra denuncia y compromiso contra la violencia de género.

- TRABAJAR para que las instituciones alavesas aseguren una participación equilibrada de mujeres y hombres en todos los espacios de responsabilidad.

- MANTENER el compromiso político de trabajar para generar un territorio de sujetos iguales en derechos y obligaciones, utilizando los medios legales existentes y posibilitando los cauces para que hombres y mujeres tengan las mismas posibilidades de desarrollo

Vitoria-Gasteiz, 8 de marzo de 2010
EL PRESIDENTE

Izp. /Fdo.: Juan Antonio Zárate Pérez de Arrilucea